

AURRERAPEN TEKNOLOGIKOAK



PABLO S. QUIZA

Hainbat ikusle, lehen jardunaldian. Eskuinean dagoena arraunean ari direnei argibideak ematen ari da.

«Zortzi segundo aurretik, hi!»

Aurtengo denboraldian eman dute baimena aurrerapen teknologikoak traineruan eramateko, beste federazioei aurrea hartuz

Iñaki Gurrutxaga |

Arraunketaren historiak izan duen azken berrikuntza dela esan daiteke aurrerakuntza teknologikoe-

na. Iragan gizaldiko zein patroik pentsatuko zuen, bada, traineru barruko estutasunean lehorretik zuzeneko informazioa jasoko zuela. Egun, arraunketan posible da hori hala izatea, eta

guztia irrti, *walkie-talkie* edota sakelako telefonoa traineru barruan eramateari esker. Baina, oraingoan ere, kalean ez da polemikarik falta.

Iñaki Ibero Euskal Herriko

Arraunketa Federazioko arbitroa da, eta haren esanetan, ikamika guztiak soberan daude, federazioak egindako azken batzarrean onartu baitzen irrtiak eta bestelako aparailuak ontzian eraman eta erabiltzea klub bakoitzaren esku zegoela. «Lehen, araudiak debekatu egiten zuen, eta momentu honetan Euskal Herrian bakarrik dago baimendua, izan ere, Espainia-ko eta Nazioarteko federazioen araudiak debekatu egiten dute», azaldu du Iberok. Hala ere, zenbait kasutan kaltegarria izan dela dio federazioko arbitroak: «Irratiak eta *walkie-talkie* erabiliz gero, uhinak nahastu eta gure kanalean sartu izan dira. Orduan, gu ere modernizatu egin gara, eta sakelako telefonoa erabiltzen dugu, orain».

Arraunaren onerako ala txarrerako?

Aurtengo denboraldian ohikoa bihurtu da arraunzaleen artean bere gogoko tripulazioaren arduradunak gisa honetako aparailuekin solasean ikustea. Luis Mari Goikoetxea Zumaia-Getariako Lehendakariarentzat, «ondo dago» aurrerapen teknologikoak erabiltzea. «Orain arte, gu ginen ezer ez zuten bakarretakoak, eta oso ondo dator erreferentziak hartu eta itsasoaren egoeraren berri emateko», zehaztu du Goikoetxeak.

Patxi Bilbao Urdaibaiko entrenatzailea da, eta bere ustez, teknologia berriak erabiltzea arraunketaren onerako da, nahiz eta jakin, lehiatzeko momentuan ez dutela «miraririk» egiten. «Ezin gara orain dela ehun urte bezala ibili. Lehen traineruak egurrezkoak ziren,

LUIS MARI GOIKOETXEA

Zumaia-Getariako lehendakaria

«Aurrerapen teknologikoak oso ondo datoz erreferentziak hartu eta itsasoaren berri emateko»

JOSE LUIS KORTA

Castroko entrenatzailea

«Azkenean, honek patroia lehorretik gidatzeko balio izan behar badu, arraunketaren kalterako izango da»

eta ikusi da fibrakoeekin mantentimendu gutxiago behar dela. Arrauna modernizatzen ari da», azaldu du. Bilbaoren arabera, azken orduko aldaketak emateko baliagarriak dira tresna hauek, «baita tripulazioa kanpotik gidatu, eta ikuskizuna hobetzeko ere».

Jose Luis Kortak, berri, arraunketarentzat «atzerapausu galanta» dela dio aurrerapen teknologikoak erabiltzea. «Azkenean, honek patroia lehorretik gidatzeko balio izan behar badu, kalterako izango da. Erreferentziak hartzeko balio behar badu hainbestean, baina hortik aurrera kalterako izango da», azpimarratu du Castroko entrenatzaileak. Kortaren esanetan, aurtengo baimendu dute «gauza» hauek erabiltzea, izan ere, «denbora luzean jende asko ibili da honen atzetik».

KAFE, TE ETA TISANA KONTUAN
INON BAINO AUKERA ZABALAGOA

Gourmet

AUTONOMIA K, 12 - TEL.: 943 46 49 35 - DONOSTIA



LABE KABINA



BANKADA

KEPA S.L.

karrozeriak

Espezialitatea txapa eta pinturan

Florida auzoa, 56 - 33 lokala - 2. solairua - Tel.. 943 55 04 04
HERNANI

**HERRIA
TABERNA**

Bokatak - Plater konbinatuak - Razioak
Abertzaileen txakoa

Euskal Presoak Etxera !!



Ikatz kalea, 14
Tfnua.: 943 422263
Alde zaharra
20003 Donostia

**ATSEDENERAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA**

beds
Dendak

- Ohe artikulatuak
- Latexezko koltxoak
- Kanape eraisgarriak
- Edredoak
- Azal Nordikoak

Ronda, 6 Tolosa etorbidea, 19
GROS / DONOSTIA ANTIGUA BERRI / DONOSTIA
Tel.: 943 32 03 58 Tel.: 943 31 27 84



TRADIPA

GARRAIO ETA BANAKETA
AZKARRENAK

GIPUZKOA - BIZKAIA - NAFARROA - ARABA - ERRIOXA - KANTABRIA

TEL.: 902 10 10 13

**AMETZA
TABERNA**

**GORA GURE
ARRAUNLARIAK !!**

**ASTILLERO
AURREAN**

Santiago auzoa, 4
943 14 33 70 - ZUMAIA